

Monseñor Cirarda: Euskal Elizaren irten- bidea, ala «Solución Centro»



Recientemente, José María Cirarda ha sido nombrado vicepresidente de la Conferencia Episcopal Española. Monseñor Cirarda es vizcaíno y, desde hace apenas unas semanas, arzobispo de Pamplona, nombrado por el Vaticano.

El presente artículo trata de analizar la incógnita de si, desde su cargo en la Conferencia Episcopal Española, Cirarda podrá acelerar la formación de una provincia eclesiástica que abarque a todo el País Vasco Sur, o si bien este último nombramiento será una manera de retrasar más aún la formación de dicha provincia eclesiástica.

Orain dela aste guti Iruineko artzapezpiku izendatu zuen Vaticano monseñor Jose Maria Cirarda, bizkaitarra. Bat baino gehiago harritu zen.

Orain dela egun guti iritsi zen Cirarda jauna bere Diozesi berrira: Euskal Herriko apezpiku gehienek -ez denez- eta Espainiako Diozesitako hainbat apaizek inguraturik.

Azken asteartean Espainiako Apezpiku Konferentziaren buruordeko hautatu dute.

Cirardaren Iruinerako izendapena jakitean, bi adierazpen ezberdin izan ziren: Batzuzentzat Euskal Eliz Probintzia eraikitzeko urrats nagusi bat emana zen; beste batzuk, ordea, "solución Centro" definitu zuten izendapen hori.

Zeini erakutsi diote bere gezurra ala egia geroztikako gertakariok?

Monseñor Cirarda: "Solución Centro"?

Izendapenaren anbiguotasuna adierazteko esaldi egokia iruditu zitzaidan Euskal Herriko egunkari batek zekarren titulua: "Mons. Cirarda, solución Centro". Eta anbiguotasun guztiarekin egia bat baino gehiago adierazten zuela uste dut.

Monseñor Cirardaren izendapena "solución centro" izan da, Eliz barneko pentsaera eta jokabideen artean erdian kokatzen delako: atzerakoien eta aurrerakoien artean, "erdiko irtenbide" bat.

Iruineko artzapezpiku berriaren izendapena "solución centro" izan da beste alde honetatik ere: hau da, Espainiako Elizaren estataismoaren eta zentralismoaren, eta Euskal Eliza autonomoaren arteko tirabiran, erdiko irtenbidea hartu da: areago, irtenbide erdizalea. Monseñor Cirarda oso sustraia

dago Espainiako "zezen larru" zabal horretan, Sevillan, Santanderren eta Corcoban zehar. Euskal (hegoaldeko) Eliz Probintziaren aldekoa dela aitortu du; baina Eliz Probintzia hau ez da Espainiako Elizaren barneko Probintzia besterik, eta Euskal Herriak erdibituta irauten du Eliz mailan ere.

Azkenik, "solución centro" izan da Cirardaren izendapena, gaurko "Centro" handiari, UCD-ren ideologiari eta politikari egoki datorkiolako.

Euskal Elizaren eraikitzaile ala Espainiakoren sostengatzaile?

Euskal Herriko (hegoaldeko) Elizaren buru bezala omen zetorrena, Espainiako Apezpiku Konferentziaren buruordeko aukeratu dute.

Seguru asko, Iruinerako izendatu baino lehenagotik ere Monseñor Cirarda Konferentziaren barnean kandidatu indartsua zen, buru edo buruordeko izateko. Baina hala ere, nahiko harigarri izan da, honera etorri orduko Madrileran "eramatea". Euskal Elizarako "bataiatu" orduko, Espainiako Elizarako "konfirmatu" dute.

Beldur izatekoa da, Cirarda, Jn.arentzat "bataioak" "konfirmazioak" baino eragin txikiagoa izango ote duen.

Ez gatoz hemen, Euskal Herriko Eliza Espainiakoaren kontra jartzera; baina Euskal Herriarentzat Euskal Eliza eskatzen dugu. Eta Iruineko Apezpiku berriaren egitekorik nagusia hau zela uste genuen: Euskal Eliz Probintzia eraikitzea eta Euskal Eliza Autonomoa indartzea.

Ez dakigu jakin, nolako lana eskatuko dion eta zenbat ordu jango dizkion Madrileko kargu berriak. Baina dena dela, Iruinetik Madri-

lera begira jarri eta duela uste dut, eta ez Euskal Herrira begira.

Onenean ere hasera sinboliko txarra da, batez ere jakinik oraindik Euskal Eliz Probintzia bera ere Euskal Eliz Probintzia bera ere Euskal kristauen esperantzatan eta hierarkiaren pro,esapetan bakarrik dagoela. Eta, grainera, gogon eduki behar da, Iruineko Apezpiku laguntzailea ere Madrilen bizi dela, erabat Espainiako edo Erromako Elizaren zerbitzutan; ez dakigu zergatik irauten duen oraindik Iruineko apezpiku laguntzaile bezala, noizbehinka Gutun pastalaren bat izenpetzeko ez baldin bada.

Eta Euskal Eliz Probintzia noiz?

Ala Cirarda Jauna Madrilen duen kargu berriaz baliatuko ote da Euskal Eliz Probintzia bizkortzeko?

Euskal kristauen eta apaizen patzientzia luzea nabarmena da; baina nekez ulertzen dute, nolatan luzatzen den oraindik, aspalditik eskatzen den eta "aginduta" dagoen Eliz Probintziaren eraikitzea: Hegoaldeko lau herrialdeak Iruineko Artzapezpikuaren inguruan bilduko litzuzkeena, halebria.

Jakina da, bai, arrazoin politikoek euskal Eliz geografiaz zatikatu eduki dutela, ez Pirinioetako mugaren bidez bakarrik eta bai Bizkaia eta araba Burgosen mende jarriaz eta Gipuzkoa eta Nafarroa beste lurralderekin batuaz ere. Sumatzekoa da, hegoaldeko lau herrialdeok gutienez Eliz Probintzia bat bakarra eta batua eratzeko bidea ixten edo bihurritzen dutenak.

Espainiako Apezpikuen Konferentzian, Euskal Herriko Elizak bere geografi eta administrazio moldaketa berria egitearen kontra-koak dira, Espainia osoko Elizarena egiten ez den bitartean.

Monseñor Cirardak, bere kargu berrietik, errazago hautsi ahal izango ote du konferentziaren barruko oztopo hori? Ala Iruineko Artzapezpikuari goiko kargu hori emanaz, errazago bigunduko eta menperatuko ote ditu Espainiako Apezpikuen Erakunde nagusiak Cirarda bera eta Euskal Herriko beste apezpikuak?

Paulo AGIRREBALTZATEGI